



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abenduaren 13koa. Horren bidez, Langraiz Okako Administrazio Batzarrari gomendatzen eta gogorazten zaio zerga-ordenantzak aldatzeko prozedura jarraitu behar duela ur-horniduraren tasa areagotu ahal izateko.

Aurrekariak

1. Erreklamaziogileak adierazi du ez dagoela ados Langraiz Okako Administrazio Batzarrak 2010eko apirilaren 27an hartu zuen erabakiarekin; izan ere, edateko ura etxeetan hornitzearen ondoriozko tasa %77,78 areagotzea adostu zuen. Tarifa berriak 2010eko maiatzeko ur-kontsumoaren fakturretan jaso ziren.

Igoera gehiegizkoa zela uste zuenez, erreklamaziogileak Administrazio Batzarrari informazioa eskatu zion erabakia justifikatzen zuten arrazoiei buruz, eta, zehazki, erabakiaren argitalpenari buruz.

Bere erantzunean, Langraiz Okako Administrazio Batzarrak jakinaren gainean dagoela adierazi du 2011ko otsailaren 7an eta honako hau erabaki du 2011ko maiatzaren 20an: *“estimar el Recurso de Reposición interpuesto por (...), informándole al mismo tiempo, que el incremento en la tasa por suministro domiciliario de agua potable acordada por esta Junta Administrativa en Sesión Ordinaria de 05/10 de 27 de abril de 2010, viene justificada por la repercusión en el mismo porcentaje que el Consorcio de Aguas de Iruña de Oca ha aplicado en alta a los entes consorciados, y por consiguiente a esta Junta Administrativa, y todo ello en virtud de acuerdo del citado Consorcio de fecha 13 de abril de 2010...”*

2. Helarazi zioten erantzunean tarifak zergatik areagotu ziren azaltzen zen, baina ez zioten erantzun eskatzen zuen elementu nagusiari, hau da, erabakia herritarren artean ezagutzera eman eta jakinaraztea. Hori dela eta, Langraiz Okako Administrazio Batzarrari informazioa eskatu genion ur-horniduraren tasak izango zuen areagotzea zerbitzuaren erabilzaileei nola jakinarazi zien jakiteko. Zehazki, ALHAOn behin betiko onespena zein egunetan argitaratu zen jakin nahi genuen.





3. Bere erantzunean, Langraiz Okako Administrazio Batzarrak azaltzen zuen tasaren areagotzea ezin dela neurritz kanpokotzat edo gehiegizkotzat jo. Are gehiago, bere planteamenduaren arabera, ez da nahikoa izan Administrazio Batzarrak zerbitzu hori eskaintzeko jasaten duen kostua ordaintzeko.

Eta erabakiaren argitalpenari dagokionez, honakoa adierazi du: *“El acuerdo adoptado por parte de la Excma. Junta Administrativa de Nanclares de la Oca en virtud del cual se interesa la repercusión efectuada por parte del CONSORCIO DE AGUAS DE IRUÑA, fue adoptado en Sesión Ordinaria 05/10 de abril de 2010, siendo el citado acuerdo público, habiendo sido expuesto el mismo en las dependencias de esta entidad, a todos los administrados, amen de ser públicos los acuerdos adoptados en las Sesiones que celebra la Excma. Junta Administrativa de Nanclares de la Oca”*

Erreklamazioa ikusirik, eta kexaren planteamendua, aurkeztutako dokumentazioa eta indarrean dagoen legeria analizatu ondoren, egokitzat jo dugu ohar hauek helaraztea:

Oharrak

1. Ebazpen honek Langraiz Okako Administrazio Batzarrak 2010eko apirilean uraren tasa areagotzeko eta herriko biztanleei kopuru berrien berri emateko (aplikatu baino lehen horien berri izan zezaten) jarraitu duen prozedurari heldu behar dio.

Herritarrei administrazioek hartzen dituzten erabakien berri ematea bat dator herritarrei zerbitzu emateko, gardentasunerako eta parte-hartzerako printzipioekin, eta printzipio horiek herri-administrazioaren jarduna zuzendu behar dute. Halaber, herritarren oinarritzko eskubide bat da berekin lotuta dauden gaien berri izatea.

Horren harira, kontuan hartzekoa da toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 69.1 artikulua honakoa adierazten duela: *“Toki-korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emango dute beren jardueri buruz eta herriko kontuetan herritar guztien partaidetza bultzatuko dute.”*

Ez dugu ahaztu behar Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuak herritarren parte-hartzerako berehalako bide tradizional bat direla.



Herritarrek berekin lotuta dauden gaien berri izateko duten eskubide hori bereziki garrantzitsua da Langraiz Okako Administrazio Batzarraren kasuan, Kontzeju Itxia baitu eta Gobernu ez baitago herritar guztien esku; alegia, Administrazio Batzarrak erabakiak hartzen ditu eta gero biztanleen artean jakinarazi behar ditu, herritarrak baitira erabaki horien edukiaren eragina jasaten dutenak.

Argi dago ezin direla alderatu administrazio batzarrek baino herritar gehiago dituzten udalerriek dauzkaten baliabide ekonomiko eta materialekin. Baina, hala ere, herritarrekiko hurbiltasuna, eragozpen bat izan beharrean, mesedegarria da askoz eraginkorragoak diren jakinarazpen-bide osagarriak ezartzeko, horien bitartez hartzailaiek informazioa hobeto jasotzea berma daiteke eta.

Administrazio Batzarrak defendatzen du 2010eko apirilean hartutako erabakia jendaurrean jarri zela eta Administrazio Batzarraren egoitzan ikusgai egon zela. Hala eta guztiz ere, onartu beharra dugu izapide hori ez zela nahikoa izan.

2. Kopuru berriak onesteko, Iruñeko Uren Partzuergoak proposatu eta bermaturik badaude ere, beharrezkoa da edateko uraren hornikuntzaren tasa arautzen duen Zerga-ordenantzaren aldaketa onartzea; alegia, tarifa berriak ezin dira aplikatu harik eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean behin betiko argitalpena gauzaten den arte.

Horri dagokionez, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak tokiko ordenantzak onesteko prozedura zein den zehazten du 49 eta 70.2 artikuluetan. Bertan, honakoa dio, hitzez hitz:

“Toki-ordenantzak onartzeko prozedura hau bete behar da:

- a) Udaleko osoko bilkurak hasierako onarpena ematea.*
- b) Gutxienez 30 egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.*
- c) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta osoko bilkurak behin betiko onarpena ematea.*

Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behinbehinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da”. (49.art.)

“Toki-korporazioek hartutako erabakiak legean aurreikusi bezala argitaratu edo jakinarazten dira. Ordenantzak, (...) probintziako “Aldizkari Ofizialean” argitaratuko dira, eta ez dira indarrean jarriko testua osorik argitaratu eta 65.2. artikuluan aurreikusitako epea igaro arte; aurrekontuak eta ordenantza fiskalak



salbuespen dira, Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legean ezarritako moduan argitaratu eta jarriko baitira indarrean.” (70.2. art.)

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak zehazten du zein den zerga-ordenantzak aldatzeko jarraitu behar den prozedura, eta, horri dagokionez, 16. artikuluan honakoa adierazten du:

“1.- Udal Korporazioek, tributuen ezarpen, ezabatze eta antolamendurako eta tributu kuota ezberdinen zehaztapenerako beharrezko diren elementuen finkapenerako hartutako akordioak eta, baita ere, dagozkien Ordenantza fiskalen onespren eta aldarazpenak Entitatearen iragarki-taulan agerian jarriko dira hogeitamar egunetan, berauetan interesdunek espedientea aztertu ahal izango dutelarik eta egokitzen jo ditzaten galdapenak aurkeztu.

2.- Udalerriek, dena den, azalpen iragarkiak Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dituzte. Era berean, hamar mila pertsona baino gehiagoko zuzenbideko biztanleria duten entitateek Lurralde Historikoan hedapenik handienetako den egunkari batetan argitaratu beharko dituzte.

3.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioek behar diren behin betiko erabakiak hartuko dituzte, aurkeztu izan diren galdapenak ebatziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabeketa edo eta, behin-behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz. Galdapenik aurkezten ez deneko kasuan, ordurarte aldi batekoa zen erabakia behin-betiko hartutzat ulertuko da.

4.- Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin-betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin-behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarazpenen testu bateratua Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratze hori burutua izan ez dadin artean.

5.- Hogei mila pertsona baino gehiagoko zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietan, bertako tributuen ordenantza fiskal erregulatzailleen testu osoa argitaratuko da, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen hiruhilabetekoaren barruan.

Dena den, Udalek, eskatzen dituztenei argitaratutako Ordenantza fiskalen kopiak luzatu beharko dizkiete.”

Gai honetako jurisprudentzia konstantea da, eta prozeduraren garrantzia azpimarratzen du; batik bat, informazio publikoari eta erabakiak aldizkarietan argitaratzeari dagokienez. Are gehiago, funtsezkotzat jotzen dituen bi izapide horietako edozein ez gauzatzea ordena publikoaren okertzat hartzen du, eta horrela onartutako ordenantza nahiz ordenantza aplikatzerakoan gauzarazi diren ordainketak guztiz baliogabe geratzea eragiten duela azaltzen du.



“cuando se trata de disposiciones de carácter general, el quebrando del cauce formal de su elaboración, es decir, la vulneración de una norma de superior jerarquía reguladora del procedimiento a seguir en la creación de la disposición reglamentaria, produce, como regla general, la nulidad de pleno derecho de la disposición (...) y ello porque sólo siguiendo tal cauce formal, que implica un límite al ejercicio de la potestad normativa, se garantiza la legalidad, acierto y oportunidad de una disposición que pasa a integrar el ordenamiento jurídico.”
(Auzitegi Gorenaren 1988-05-10eko epaia, 2. oinarri juridikoa)

Jendeaurrean informatzeko eta aldizkari ofizialean argitaratzeko izapidea alde batera uzteak kolokan jartzen ditu honako printzipio hauek: *“los principios de audiencia a los ciudadanos, participación de los mismos en la vida política y de seguridad jurídica, que se derivan de los arts. 9 y 105 de la CE, como garantía de que las modificaciones normativas proyectadas e inicialmente aprobadas lleguen de las maneras más pertinentes posibles, a conocimiento de los interesados sin exclusión de ninguno de los medios para ello programados, por lo que la omisión de dicho trámite esencial, obliga a los Jueces y Tribunales, en aplicación de los artículos 5 y 7 de la Ley Orgánica del Poder Judicial, declaren la nulidad, que siempre será de pleno derecho.”* [Auzitegi Gorenaren 1998-03-12ko epaia, 3. oinarri juridikoa (jurisprudentiako erreperitorioa 1998\3029)]

Kasu honetan, indarrean zegoen zerga-ordenantzaren aldaketa ez zen izapidetu. Administrazio Batzarrak 2010eko apirilaren 27an uraren tasa areagotzea erabaki zen, eta, ondoren, berehala aplikatu zen ur-kontsumoetan 2010eko maiatzetik aurrera. Hau da, ezarritako prozedura guztiz baztertu zen.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

48/2011 GOMENDIOA, abenduaren 13koa, Langraiz Okako Administrazio Batzarrari egina

Langraiz Okako Administrazio Batzarrak erabakiak hartzen dituenetan eta herritarrei erabakiok betetzea exijituko zaienean toki erakunde horrek neurriak har ditzala erabakia aplikatzen hasi baino lehen herritarrek erabakien berri izan dezaten.

Era horretako neurriek administrazio-jardueraren gardentasuna eta jakinarazpena sustatzen dute, baina gailentzekoa da beti direla araua argitaratzeko izapidearen osagarri; hortaz, horrelako neurriak hartzeak ez du izapide hori inola ere ordezkatzen.



Uraren tarifen igoerak ezin dira indarrean sartu, eta, ondorioz, Langraiz Okako Administrazio Batzarrak ezin du uraren kontsumoa tasari egotzitako kopuru berrietan oinarrituz fakturatu ez baldin bada aldaketa izapidetu eta ez baldin bada aldaketaren testu osoa Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu, gutxienez.

